ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2022ko urtarrilaren 3a, astelehena • 1 zk.

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

# EUSKO JAURLARITZA

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritza

**Jendaurrean argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Laudio udal-mugartean eta Bizkaiko Orozko udal-mugartean, Larragorri parke eolikorako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera**

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Larragorriko parke eolikorako aurkeztutako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

– Kokalekua: Larragorri.

– Eskatzailea: Green Capital Development 147, SL.

–Tartean dauden udal-mugarteak: Laudio (Araba) eta Orozko (Bizkaia).

– Haize-sorgailuen kopurua: 5.

– Instalatu den potentzia gordina: 22,5 MW.

– Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

| POLIGONALA | UTM X | UTM Y |
|---|---|---|
| 1 | 502470 | 4773501 |
| 2 | 503395 | 4773340 |
| 3 | 503777 | 4772829 |
| 4 | 504198 | 4772318 |
| 5 | 504961 | 4771818 |
| 6 | 503968 | 4771412 |
| 7 | 503774 | 4771880 |
| 8 | 503930 | 4772027 |
| 9 | 503365 | 4772379 |
| 10 | 503057 | 4772790 |
| 11 | 502367 | 4772910 |

Hori guztia argitara ematen da, eta hogei eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren araberako lehia-eskabidea aurkeztu

dezaten Bizkaiko Industria Administrazioko Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu/.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 13a

*Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria*
*ZIGOR URKIAGA URKIZA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.01.03 07:58:23 Z